



## EUROPAR INTEGRAZIOARI BURUZKO OSTEGUN FEDERALA

Dakizunez, Euskal Herriko Federalistak/UEF Euskadi Elkarteak Espainiako eta Europako kultura federala sustatzea helburu duten Ostegun Federalen esparruan, bi topaketa antolatu ditu Europar Batasunaren erronkak aztertzeko. Saioak zuzenean jarraitu ahal izango dira [YouTubeko federalisten kanalean](#) eta txataren bidez parte hartu ahal izango da.

Gure helburua da bertatik Europaren etorkizunari buruzko Biltzarraren lanak egiten laguntzea. Biltzar hori martxoaren 10ean deitu zuten Europako erakundeetako hiru presidentetek: David Sassoli, Legebiltzarreko presidentek; Ursula von der Leyen, Batzordeko presidentek; eta António Costa, Kontseiluko egungo presidentek (Portugali dagokio sei hilean behingo lehendakaritza). Biltzarra Europar Batasunaren politikari buruzko foro irekia da, eta zabalik egongo da datozen hilabeteetan herritarrek eta EBko gizarte zibileko erakundeek Europaren etorkizuneko norabideari buruzko eztabaidetan parte har dezaten.

### MAIATZAREN 13KO SAIOA

#### Europaren etorkizunari buruzko konferentzia: gobernantzaren hobekuntza eta gizarte zibilaren parte-hartzea

Parte hartzaileak:

- **Enrique Barón**

Espainiako Europazaleen eta Federalisten Batasuneko presidentea da. Europako Parlamentuko presidentea, Espainiako Gobernuko Garraio ministroa eta Kongresuko diputatua izana da.

- **Christa Schweng**

EGABeko (Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea) egungo presidentea da. Austrian Federal Economic Chamber (WKÖ) erakundearen ordezkaria, zeina Business Europeko kidea den.

- **José Manuel García-Margallo**

Egun, Europako Parlamentuko diputatua da (Alderdi Popularretik), Espainiako Gobernuko Kanpo Arazoetako ministroa izana eta Kongresuko diputatua hainbat legealditan.

- **Patxi Aldecoa**

Europako Mugimenduaren Espainiako Kontseiluko presidentea eta UCMko (Universidad Complutense de Madrid) Nazioarteko Harremanetako katedraduna da.

Gonbidatuen aurkezpena **José Felix Merladet** Euskadiko Federalisten Elkarteko (UEF) presidentekideak egingo du eta solasaldia **Luis Miguel Parizak** moderatuko du. **Ekitaldia arratsaldeko 18:30ean hasiko da** zuzenean [You Tubeko federalisten kanalean](#), eta **20:15ean amaituko da**.

Bestalde, jakinarazten dizugu Elkartearen Batzar nagusi bat ekainaren 17an egitea aurreikusten dugula. Deialdia behin betiko osatzen denean bidaliko zaizue gai-zerrenda.

Ondo izan, eta gogoratu: twitterren ([@federalistak](#)) eta sarean ([www.federalistak.eus](http://www.federalistak.eus)) ere topatuko gaituzu!